



Usurbilgo Udala

## 2016KO MAIATZAREN 10EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Garcia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontratazio teknikaria:** Olatz de Miguel Arnaiz

**Ezin-etorria adierazi du:** Andoni Atxega San Sebastian-ek


Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko maiatzaren 10ean, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### **1.- ARTZABAL ERAIKINEKO GURE PAKEA JUBILATUEN TABERNAREN KUDEAKETA. ESKAINTZA ONENA IZENDATZEA.**

Alkateak adierazi du eskaintza hau prozesu batetik datorrela eta prozesu horren oinarriak pleno honetan bertan onartu zirela. Nabarmentzekoa dela dio kontratu honek bost urteko iraupena duela, beste bost urtez luzagarria dena, eta gaineratu du gutxieneko kanona 1.000 eurotan ezarri zela.



Usurbilgo Udala

Lizitaziora bi pertsona aurkeztu zirela esan du, batetik, Aroa Bengoetxea eta, bestetik, Igor Gorriti, bietan puntuaziorik altuena azken honek lortu duelarik.

Jarraian, irizpenak jasotzen dituen puntuak azaldu ditu.

Argitu du prozedurak eskatzen duela gaur plenoak izendapen hau zehaztea, baina berez horrek ez duela esan nahi kontratu adjudikatzailea hemen izendatzen denik, 10 eguneko epe hori pasatakoan, hurrengo plenoan erabakiko dela esan du nor izango den kontratu honen hartzailea.

Batzarkideek, Kontratazio Mahaiaren proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio testuak:

“Espediente zkia: ID.05/2016-0024

Artzabal eraikinean kokaturiko Gure Pakea jubilatuen tabernaren kudeaketa kontratua iragarri zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean, 2016ko otsailaren 2an.

Emandako epean honako eskaintza hauek aurkeztu dira: Igor Gorriti eta Aroa Bengoetxea.

Lizitatzaileren proposamenak baloratu ondoren, amaierako emaitzak hauek izan dira:

LIZITATZAILEA	BALIO TEKNIKOA (40 p)			HOBEKUNTZAK (B)	KANON	TITULAZIO	INBERTSIO	GUZTIRA
	Ustiapena	Auzora egokituta	Langile antolaketa					
Aroa Bengoetxea	12,75	11	7,50	1,25	33,33	5	5	75,83
Igor Gorriti	15,15	10	7,50	0,50	40	5	5	83,15

Gaia 2016ko maiatzaren 6an egindako Kontratazio Mahaian eztabaidatu ondoren ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi, Garazi Etxeberria, Karmele Lizaso, Jone Urdanpilleta, Nerea Altxu.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENA:** Aurkezturiko eskaintzak honako ordenaren arabera sailkatzea eta puntuaketa altuena atera duena IGOR GORRITI-rena dela zehaztea:

1. IGOR GORRITI: 83,15 puntu
2. AROA BENGOETXEA: 75,83 puntu



Usurbilgo Udala

**BIGARRENA:** IGOR GORRITI-ri erabaki honen berri ematea eta errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean oinarri administratiboetako 23. klausulan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan:

Sektore Publikoko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua zehazten dituen aurretzako ukanbeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituen agiriak (originalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea ezarri izana:

- Bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea, kontratuaren esleipen zenbatekoaren %5ekoa, hau da, 9.600 eurokoa.

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionala, lizitatzailerak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate bat ordezkatzuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.
- Lizitatzailerak pertsona juridiko bat denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egon behar badu. Inskribatuta egon behar ez badu, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu beharko da. Agiri horietan jardueraren arauak agertu beharko dute, beharrezkoa bada dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek lanbide edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, dena delako estatuko legediak baldintza hori eskatzen badu.
- Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte bat eratu eta lizitaziora jotzen badute, taldekide bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa ekarriko du, adjudikaziodun suertatuz gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute aldi baterako enpresa elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

b) Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituela frogatzen duten agiriak.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa egiaztatzen duen agiria, bat edo beste;

- Urteko negozio bolumena kontratuak hartzen duen eremuan, gutxienez urteko 12.000 eurotako.
- Arrisku profesionalengatiko segurua 300.000 eurotako.

e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Bi baldintza hauek ziurtatzen dituzten agiriak aurkeztuz:



Usurbilgo Udala

- *Azken 5 urteetan ostalaritzan emandako zerbitzuak*, eta adieraziko dituzte haien zenbatekoa, urteko ordu kopurua eta destino publikoa edo pribatua, eta horiek gehituko zaizkie horiei buruzko ziurtagiriak (arloan pribatuan eman bada, kontratuak, bitzita laborala, autonomoetako alta paperak etab.). Azken 5 urteetan gutxienez lizitazio honen kopuruaren antzeko 2 zerbitzu eman dituztenek ulertuko da kaudimena dutela.

- *Enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako langileen, eta bereziki, kontratua gauzatzeko ardura duten langileen titulazio akademiko eta profesionalak:*

- Langileek: Elikagaien manipulazailer titulua eta ahozko B2 maila.

f) Atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dietela dioen aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, behar izanez gero, lizitazailerari dagokion atzerriko eskumen foruari uko egingo dietela adieraziko dute.

g) Aseguru Poliza eta ordain-agiria.

h) Langileek plegu administratibo eta teknikoetan zehazturiko ezaugarriak betetzen dituztenaren gainerako titulu eta ziurtagiriak (langile zerrenda, hizkuntz eskakizuna, ikasketa titulazioak,...).

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen duen Sailkatutako Enpresen erregistro ofizialean izena emanda dauden lizitazailerak ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, 23.a), 23.b) eta 23.c) ataletan eskatzen diren agirien ordeztu; ziurtagiria erregistroko letratu arduradunak egingo du.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

Administrazioarekin kontratatzeko eskaturiko gaitasun eta kaudimen baldintzak ematen direla aintzat hartzeko unea proposamenak aurkezteko epearen amaiera unea izango da.

**HIRUGARRENA:** Ebazpen honen berri IGOR GORRITI, AROA BENGOETXEA, Gizarte Zerbitzuen sailari eta Kontu-hartzailetza sailari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

## **2.- GALDERA-ESKAERAK.**

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:05etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**